



Aholku eta jardunbide egokiak kontsultatu hondartzez eta bainu seguruaz gozatzeko

1. Bainurik hoberena, bainu segurua da. Egin seinaleztapen banderek momento bakoitzean agintzen dutena.
2. Sorosleen aholkuei kasu egiten badiezu, hondartza egun on batez gozatu duzu.
3. Igeri egin beti olatuen hautsieraren paraleloan eta ez urrundu hondartzatik.
4. Ez badakizu igeri egiten edo ez baduzu zure burua igeri egiteko gai ikusten, bainatu beti sorosle baten alboan, ohartarazi uretan sartu baino lehen eta saiatu urak ez dezala zure gerria gainditu.
5. Ez igaro inoiz buia horiekin adierazitako gunea eta ez igeri egin kai-muturretatik urbil.
6. Edozein arazo izan ezker, soroslea edo alborago duzun persona ohartarazi eskua altzatuz edo hitzez laguntza eskatuz. Lasai mantentzen saiatu zaitez laguntza heltzen den bitartean. Zure esku baliabide flotatzaile bat baduzu, erabili ezazu eta ez ezazu bertan behera utzi.
7. Bainua hartzeko orduan, korronteak oso aintzat hartu behar dira. Korronteak egotekotan, banderaren koloreak iragarriko ditu. Sorosleen kontseiluei jaramon egin. Korronte baten erdian harrapatuta aurkitzen bazara, ez egin igeri inoiz bere kontra, ur gainean mantendu zaitez eta laguntza eskatu.
8. Medusen agerpena somatzen baduzu neurriak hartu, ez ezazu bere alboan bainurik hartu eta ez saiatu medusak ukitzen ez uretik ateratzen. Egia esan, hoberena bainurik ez hartzea da. Umeek medusekin jolastea ekidin eta, ziztada kasuan, laguntza eskatu sorosleari.

Eta gogora ezazu:

Jardunbide egokiak hondartzaz gozatzeko

Hondartza elkarbizitza gune haundia da. Zaindu eta partekatu ezazu.



Hautakor izan zaitez eta ipini hondakin bakoitza bere edukiontzian: ontziak horira eta bestelakoak grisera.

Erretzen baduzu, ez itzazu zigarro-mutxikinak zein errautsak arean bota. Ura garbi egotea zure esku dago baita ere.

Musika entzun nahi baduzu , entzungailuekin egin ezazu edo inor molestatu gabe.

Dutxak eta bainugelak kontuz erabiltzen badituzu, beti prest aurkituko dituzu.

Jardunbide egokiak Gorlizen mendi-ibiliak egiteko

Bota erosoak eta erropa egokia euria egingo balu

Ez irten inoiz bakarrik eta, irten aurretik, esan nora zoazen eta noiz bueltatuko zaren

lbilbidea nekazaritza, abeltzaintza edo basosaintzarako erabiltzen diren bide eta basabideetan zehar iragan daiteke. Atakak bilatu dituzun moduan utzi eta errespetatu biztanleen bideak eta jabetzak, gu han egon garelako kexatu ez daitezen.

Argazkia da gomutapenik onena. Ez kendu lorerik ez adarrik, eta ez molestatu larran dabiltzan animaliak, ezta gainerako fauna ere. Horrela, guztiok ikusi ahal izango ditugu.

Zure txakurra kontrolpean eraman, abereak edo beste animalia batzuk molestatu edo ikaratu ez ditzan.

Ez egin surik eta ez utzi zaborrik batze-lekuetatik kanpo. Zaindu natur guneak, etorkizuneko belaunaldiak ere horietaz gozatzeko aukera izan dezaten.